



GURE MENDIAK

*Nere lagun maite Antxon Bandres'i
gogo biotzez.*

Itun zaudete Mendi maitiak. Itun gu ere zueri begira Mendigoizaliak. Negu beltzak egin digu zarrera, Mendi tontorrek Elurres txurituak agertzen dira eta geienian laño pian.

Odei baltzak zuen gaiñ daude ekaitza ondoren dutela, zuen bizkarretako txabolatxuak utzik daude eta ixilik, bertako artzaiak, alde egin dute beko ibarretara. Zuen zelai zabalak ezdute artalderik, zuen zelaiak ezdute loretxurik, ezda aitzen txori abesti goxorik, zugaitzak berriz agertzen dira, gorri-gorririk bizirik gabe ilda lez,..... eta ala ere, maite zaitugu Mendi ozazuntzuak.....

Artzai irrintziak alde egin dute zuen gaiñetatik, mendiko poza eta atzegiña, Artzaia, beian degu gurekin, ala ere gure biotza eta gure gogua zuekin dago, goian ozo goian, elur eta laño tartian, otzak eta itun, baña garbi eta kelmentzu.

¿Eta nola ez gure gogua zuekin Mendi gaiñan.....? Ikuzten degu nola zeme geienak aztuak zaituzten, nola ezagutu ez eta begiratzen ez zaituzten, baña ala ere, guk Mendigoizaliak aitortzen degu zuen zemiak gerala, eta gure jatorria zuen altzo biguñian zortu zala.

¡¡Zeiñ ederrak eta maitekorrek zeraten, eta zein gutxik ezagutzen zaituzten gure Mendiak.....!!

Zuen Edeztia bikaiñ, zaintzu eta kelmentzu agertzen da gizaldietan ziar, zuan edertazunakin batera gordetzen dezute Euzko Abendan pitxirik ederrena, gure Ele Euzkera maitegarria, gure oiturak eta abeztiak, Euzko izate guztia, eta ala ere ez zaituzte maite zeme azkok eta azkok, ez zaituzte ezagutzen.....!!

¡¡Anai Menditarra!! Oldoztu eta maite gure mendiak, igo beren gaiñetara, begiratu beko urietara eta oldoztu orduan maiteko dezu erria, eta orduan negare gingo dezu.

Gure Mendiak..... Agur, eta aurki arte.
Zumarraga.

LINAZASORO ETA KARLA.
(Euzko Mendigoizale Batzakua.)